

**2009ko UZTAILAREN 29an LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2009ko uztailaren 29an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Iñigo Aginalde Lertxundi

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea eta Karlos Irazu Muñoa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
- 2009ko uztailaren 2an egindako ohiko bilkura.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Tolosaldeko Mankomunitateak aurkezturiko fakturaren onespena, uztailetik abendura emandako zerbitzuagatik, hala bada.**
- 4. Larraulgo bake epailea eta bere ordezkoa hautaketaren onespena, hala bada.**
- 5. 2008. Urteko aurrekontuaren kontu orokorraren onespena, hala bada.**
- 6. Fakturak eta ordainketak.**
- 7. Beste batzuk.**
- 8. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.

- ▣ 2009 urteko uztailaren 2ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2009 urteko uztailaren 21eko Ez-Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

50/2009 Alkateza Ebazpena, uztailaren 21ekoa, 2009ko 2. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onartzea ebazten duena.

51/2009 Alkateza Ebazpena, uztailaren 23koa, Larraulgo Udalak Kutxan duen 0000089276 kontu korrontetik 9.000 eurotako diru ekarpena egitea onestea ebazten dutena Festetako batzordearen izenean dagoen 0011490745 kontuan, 2009ko San Esteban eta San Bartolome jaiak antolatzeke.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAK AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, UZTAILETIK ABENDURA EMANDAKO ZERBITZUAGATIK, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitatetik igorritako faktura, non Larraulgo Udalari 2009 uztailetik abendura bitartean egin behar duen ekarpena, guztira 7.518,08 eurotako, burutzeko eskaera luzatzen zaion.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Tolosaldeko Mankomunitateari 7.518,08 eurotako diru ekarpena egitea, 2009 ekitaldiko uztailetik abendura emandako zerbitzuaren kontzeptupean.

BIGARRENA.- 7.518,08 eurotako gastua onestea.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO BAKE EPAILEA ETA BERE ORDEZKOA HAUTAKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2009 urteko ekainaren 4ean Udalbatzarrak, ospatutako ohizko bilkuran, hartutako akordioz datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdi publikoa egitea erabaki zuela.

Ikusirik Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 2009 urteko uztailaren 1ean eta deialdiari buruzko bandoa banatu zitzaizela Larraulgo herritarrei, hamabost lanegunetako epea zabaldu zelarik, 2009 urteko uztailaren 2tik 20a bitartean, biak barne, interesa zuteneak Larraulgo Udaletxean izena eman zezaten.

Ikusirik epearen barnean ondorengo hiru pertsonak eskaera aurkeztu dutela:

- Enara Treku Arruti.
- Leire Ormazabal Telleria.
- Ane Gomez Urteaga

Ikusirik hiru hautagaiek kargua hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela eta ez dutela Botere Judizialeko Lege Organikoak 102,302, 303 eta 309 artikuluetan, eta Bake Epaileei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erreklamenduan xedatutako ezgaitasun zein bateraezintasun kausarik.

Ikusirik bi lehenengo hautagaiak Larraulgo udalerrian erroldatuta daudela eta hirugarrena aldiz Gaintzako udalerrian.

Gaia azterturik Udalbatzarrak aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epaile moduan izendatua izan dadin Leire Ormazabal Telleria andrea proposatu, Larraulen erroldatuta dagoen hautagaia delako eta azken lau urteetan ez duelako kargu hori egikaritu.

BIGARRENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailearen ordezkoi moduan izendatua izan dadin Enara Treku Arruti andrea proposatu, Larraulen erroldatuta dagoen beste hautagaia delako, azkeneko lau urteetan Larraulgo Bake Epaile kargua egikaritu duena.

HIRUGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri eman eta aldi berean akordioa argitaratu Udaletxeko Irgaraki Taulan.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiari eman.

BOSTGARREN PUNTUA

2008.URTEKOAURREKONTUAREN KONTU OROKORRAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2008 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkion.

Ikusirik 2009ko uztailaren 1ean argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendeaurreko epea ireki dela 2009ko uztailaren 2tik 20ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2008 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

EUSKALTEL	181,20
MANPEL	85,12
GIPUZKOAKO URAK, S.A.	2.933,26
IBERDROLA	39,75
IBERDROLA	115,33
IBERDROLA	17,28
IBERDROLA	23,19
IBERDROLA	118,10
IBERDROLA	4,03

IBERDROLA	99,17
TELEFONICA	88,20
TELEFONICA	16,21
TELEFONICA	17,30
TELEFONICA	67,53
REPSOLGAS	83,80
REPSOLGAS	15,39
ARGITU	91,10
ULAH	770,69
CONSUELO URTEAGA	1.218,00
MANUEL LARRAMENDI	158,92
DISTRIBUCIONES LOPETEGI	92,16
UROLA	179,09
KIROLZER	111,10
MRW	31,84

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.557,76** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

7.1. MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNARI 2009 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik 2009 ekitaldirako Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurkeztu duela “Beterri-Aiztondo gerora bidean” egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 4.660,00 eurotako, eta bertan % 60-aren ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik aurtan asko igo dela “Beterri-Aiztondo gerora bidean egitasmoaren” aurrekontua, eta bertan konkretuki Saiakera bilduma 2.200,00.-euro, Larraulgo Udalak gai hau argitzea eskatu dituelarik, aurrekontuaren beste kontzeptuekin ados dagoelarik.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- “Beterri-Aiztondo gerora bidean” 2009 ekitaldirako aurkezturiko aurrekontua onartzea Saiakera bilduma ezik, 2.460,00 eurotako kopuruan eta % 60-aren ordainketa burutzea, hau da 1.476,00 euro.

BIGARRENA.- 2009ko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

7.2.LARRAULGO ESKOLAN EGIN BEHAR DIREN HAINBAT LANEN ESLEIPENA ONESTU, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo eskolan 2009-2010 ikasturterako hainbat lan egin behar direla, lan hauek egiteko obra txiki bat denez, bi aurrekontu eskatu direlarik, ARGIÑA, S.L. eta OSTARBI ERAIKUNTZAK & ZERBITZUAK enpresei.

Ikusirik Larraulgo eskolan egin behar diren lanak egiteko Ostarbi Eraikuntzak & Zerbitzuak enpresak aurkezturiko aurrekontua dela egokiena, bere kostua 22.368,74 euro direlarik BEZ barne.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ostarbi Eraikuntzak & Zerbitzuak enpresari Larraulgo eskolan 2009-2010 ikusturterako beharrezkoak diren lanak egiteko kontratua esleitzea, bere zenbatekoa 22.368,74 euro direlarik (BEZ barne).

BIGARRENA: 22.368,74 eurotako gastua onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA